

## 8/2024 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2024KO URRIAREN 29AN EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### BERTARATUTAKOAK:

##### ALKATEA

Egoitz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

##### ZINEGOTZIAK:

Ana Elozegi Artola (EH Bildu taldea)  
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)  
Maialen Mujika Lizaso (EH Bildu taldea)  
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)  
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)  
Agurtzane NuñezYarza (EAJ taldea)  
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)  
Bakarne Garmendia Usabiaga (EH Bildu taldea)  
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)

##### IDAZKARIA:

Elena Zaldua Miguel

##### EZ BERTARATUTAKOAK:

Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

Anoetako Udaletxean, 2024ko urriaren 29an, arratsaldeko 19:00tan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko bilkura antolatu da, Egoitz Luisa Urkola Alkatearen lehendakaritzapean, eta Elena Zaldua Miguel aritu da Idazkari lanetan.

Alkateak hitza hartu du eta Erikaren ordezkari idazkari berria aurkeztu du, ongietorria emanez.

Behin aurrekoa azalduta eta Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

## I. EBAZPENAK

### 1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2024ko uztailaren 23an egindako ezohiko osoko Bilkuraren akta aho batez onartu da.

## 2.- TRANSFERENTZIA BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2024-KALD-000011-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza hartu du eta transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2024-KALD-000011-00 espedienteari hasiera ematea agintzen zuen 2024ko irailaren 13ko probidentziaren edukia azaldu du.

Alkateak egindako kreditu transferentzien proposamena ondorengoa da:

### Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

| Partida                   | Izena                              | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|---------------------------|------------------------------------|--------------------|------------|--------------------|
| 1 0000.643.920.00.01 2024 | HERRI ONDASUNEN INBENTARIOA EGITEA | 15.000,00          | 12.100,00  | 2.900,00           |
|                           |                                    |                    |            |                    |
|                           | GUZTIRA                            | 15.000,00          | 12.100,00  | 2.900,00           |

### Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

| Partida (*)               | Izena                                    | Hasierako kreditua | Gehikuntza | Amaierako kreditua |
|---------------------------|--|--------------------|------------|--------------------|
| 1 0000.227.920.00.99 2024 | HAINBAT KONTRATU. ADMINISTRAZIO OROKORRA | 33.000,00          | 12.100,00  | 45.100,00          |
|                           |  |                    |            |                    |
|                           | GUZTIRA                                  | 33.000,00          | 12.100,00  | 45.100,00          |

Idazkari Kontu-hartzaileak egindako txostena azaldu da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 29. artikuluan ezarritakoarekin, baita Aurrekontua Gauzatzeko urteko Arauekin ere.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa aztertutik, Udaltzat, aho batez, honakoa onartu du:

### EBAZPENA

**LEHENENGOA.** Onartzea Udaltzat honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin.

**BIGARRENA.** Kontuhartzaitzak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa delako.

### 3.- **HIRI-LUR IZAERAKO LURSAILEN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

Alkatetzak, 2024ko irailaren 6an egindako probidentzian azaldutako legez, egokitzen eta beharrezkotzat jotzen du Hirilur izaerako lursailen balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren Ordenantza Fiskala aldatzea, 2021eko azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretu-Araura egokitzeko.

Idazkari-Kontuhartzaileak, 2024 irailaren 6an, ordenantza fiskala aldatzeko jarraitu beharreko prozeduraren gaineko txostena egin zuen, baita hiri lur izaerako lursailen balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren ordenantza aldatzeko proposamena irailaren 11an.

Halaber, 2024ko irailaren 11an, ondorengo ebazpen-proposamen txostena egin zuen:

“...

**LEHENENGOA.** Hirilur izaerako lursailen balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren Ordenantza Fiskal arautzailearen aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean agertzen den testuarekin.

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epeaz, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztu ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

...”

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udaltzarak, aho batez, honakoa onartu du:

#### **EBAZPENA**

**LEHENENGOA.** Hirilur izaerako lursailen balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren Ordenantza Fiskal arautzailearen aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean agertzen den testuarekin.

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epeaz, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo

egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

#### **4.- ANOETAKO UDALEKO EUSKARAREN ERABILERAREN PLAN ESTRATEGIKOA (2023-2027) ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Udalaren euskararen erabileraren diagnostikoa egin ondoren, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA), Anoetako Euskara Zerbitauak eta Anoetako udal-taldeak VII. Plangintzaldirako Euskararen Erabileraren Plan Estrategikoaren proposamena landu dute.

2024ko irailaren 11n “Anoetako udalean euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa 2023-2027” proposamena Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara (HPS) bidali zen haien oniritzia jasotzeko.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak udalei aitortzen die, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena. Lege horrek euskara toki-erakundeetan sustatzeko neurriak hartzea ezartzen du; bestalde, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, legea garatzen du, bi xedekin: euskararen eta gaztelaniaren erabilera instituzional eta administratiboak arautzea Euskadiko toki-entitateetan, eta herritarrei hizkuntza-eskubideak bermatzea toki-administrazioekiko harremanetan. Udalaren hizkuntza-politika islatzeko tresnen arten, hizkuntza normalizatzeko planak ezarri ditu.

HPSek 35 adierazle hartu ditu kontuan Anoetako Udalaren plana aztertzeko eta hori guztia kontuan hartuta, begi honez ikusten du Anoetako Udalak egin duen euskararen erabilera plan-proposamena.

Oniritzi hau jaso ondoren, Euskara Teknikariak Anoetako Udaleko euskararen erabileraren plan estrategikoa (2023-2027) onartzeko proposamena egin du.

Plana inplementatu ahal izateko, lehenik Osoko Bilkurak onartu behar du.

PROPOSAMENA



**LEHENENGOA.** Anoetako Udaleko Osoko Bilkurak onartzea VII. Plangintzaldirako (2023-2027) Euskararen Erabileraren Plan Estrategikoa eta haren baitan zehaztutako hizkuntza-irizpideak.

**BIGARRENA.** Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren berri ematea Udaleko euskara departamentuari, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari (berariazko aplikazioaren bidez) eta UEMA mankomunitateari.

Gaia jorratu ondoren, udalbatzak aho batez onartu du:

### **EBAZPENA**

**LEHENENGOA.** Anoetako Udaleko Osoko Bilkurak onartzea VII. Plangintzaldirako (2023-2027) Euskararen Erabileraren Plan Estrategikoa eta haren baitan zehaztutako hizkuntza-irizpideak.

**BIGARRENA.** Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren berri ematea Udaleko euskara departamentuari, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari (berariazko aplikazioaren bidez) eta UEMA mankomunitateari.

### **5.- TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTA EZARTZEKO FUNTSEZKOAK DIREN ELEMENTUAK ARAUTZEKO ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

Alkatetzak, 2024ko urriaren 15ean egindako probidentzian azaldutako legez, egokitzen eta beharrezkotzat jotzen du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren koefizientea eguneratzea %2,6 igoz, KPIa izaten are den igoera kontutan izanda.

Idazkari-Kontuhartzaileak, 2024 urriaren 24ean, ordenantza fiskala aldatzeko jarraitu beharreko prozeduraren gaineko txostena egin zuen, baita aldeko Kontu-hartzailetzeko txostena ere.

Halaber, 2024ko urriaren 24ean, ondorengo ebazpen-proposamen txostena egin zuen:

**LEHENENGOA.** Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren kuota ezartzeko funtsezkoak diren elementuak arautzeko Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean agertzen den ondorengo testuarekin:

| TARIFA      | KOEFIZIENTEA | ZENBATEKOA |
|-------------|--------------|------------|
| A)Turismoak |              |            |

|   |           |             |
|---|-----------|-------------|
| 9 zaldi fiskaletik beherakoak   | 2,1413808 | 39,38 euro  |
| 9tik 11,99 zaldi fiskaletara bitartekoak  | 2,1251757 | 78,16 euro  |
| 12tik 13,99 zaldi fiskaletara bitartekoak   | 2,1253848 | 130,28 euro |
| 14tik 15,99 zaldi fiskaletara bitartekoak   | 2,1799595 | 187,08 euro |
| 16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak   | 2,2345343 | 246,56 euro |
| 20 zaldi fiskaletik gorakoak  | 2,2890046 | 308,70 euro |
| <b>B) Autobusak</b>   |           |             |
| 21 plaza baino gutxiagokoak   | 2,125489  | 177,05 euro |
| 21etik 50 plazatara bitartekoak   | 2,125489  | 252,17 euro |
| 50 plaza baino gehiagokoak  | 2,125489  | 315,21 euro |
| <b>C) Kamioiak</b>  |           |             |
| 1.000 kg.-tik beherako karga erabilgarria dutenak                                   | 2,1255939 | 89,87 euro  |
| 1.000 kg.tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgaria dutenak                        | 2,1293576 | 177,38 euro |
| 2.999 kg.tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak                       | 2,125489  | 252,17 euro |
| 9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak                                      | 2,125489  | 315,21 euro |
| <b>D) Traktoreak</b>  |           |             |
| 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak  | 2,0166534 | 35,63 euro  |
| 16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak.   | 2,0165488 | 56,00 euro  |
| 25 zaldi fiskal baino gehiagokoak   | 2,0163397 | 167,96 euro |
| <b>E) Trakzio mekanikodun ibilgailuek arrastran eramandako atoi eta erdi-atoiak</b> |           |             |
| 1.000 kg. baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak    | 2,0707054 | 36,59 euro  |
| 1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak                           | 2,0711236 | 57,52 euro  |
| 2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak                                      | 2,0710191 | 172,52 euro |
| <b>F) Gainerako ibilgailuak</b>   |           |             |
| Ziklomotoreak   | 2,1270575 | 9,59 euro   |
| 125 cc-ra bitarteko motozikletak  | 2,1270575 | 9,59 euro   |
| 125cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak  | 2,1250711 | 16,41 euro  |
| 250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak   | 2,1256984 | 32,84 euro  |

|   |           |             |
|---|-----------|-------------|
| 500 cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak | 2,2523079 | 69,60 euro  |
| 1.000 cc-tik gorako motozikletak              | 2,179855  | 134,69 euro |

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

### EBAZPENA

**LEHENENGOA.** Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren kuota ezartzeko funtsezkoak diren elementuak arautzeko Ordenantza Fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean agertzen den ondorengo testuarekin:

| TARIFA  | KOEFIZIENTEA | ZENBATEKOA  |
|---|--------------|-------------|
| <b>A) Turismoak</b>                               |              |             |
| 9 zaldi fiskaletik beherakoak                     | 2,1413808    | 39,38 euro  |
| 9tik 11,99 zaldi fiskaletara bitartekoak          | 2,1251757    | 78,16 euro  |
| 12tik 13,99 zaldi fiskaletara bitartekoak         | 2,1253848    | 130,28 euro |
| 14tik 15,99 zaldi fiskaletara bitartekoak         | 2,1799595    | 187,08 euro |
| 16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak           | 2,2345343    | 246,56 euro |
| 20 zaldi fiskaletik gorakoak                      | 2,2890046    | 308,70 euro |
| <b>B) Autobusak</b>                               |              |             |
| 21 plaza baino gutxiagokoak                       | 2,125489     | 177,05 euro |
| 21etik 50 plazatara bitartekoak                   | 2,125489     | 252,17 euro |
| 50 plaza baino gehiagokoak                        | 2,125489     | 315,21 euro |
| <b>C) Kamioiak</b>                                |              |             |
| 1.000 kg.-tik beherako karga erabilgarria dutenak | 2,1255939    | 89,87 euro  |

|   |           |             |
|---|-----------|-------------|
| 1.000 kg.tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgria dutenak                         | 2,1293576 | 177,38 euro |
| 2.999 kg.tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak                       | 2,125489  | 252,17 euro |
| 9.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak                                      | 2,125489  | 315,21 euro |
| <b>D) Traktoreak</b>  |           |             |
| 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak  | 2,0166534 | 35,63 euro  |
| 16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak.   | 2,0165488 | 56,00 euro  |
| 25 zaldi fiskal baino gehiagokoak   | 2,0163397 | 167,96 euro |
| <b>E) Trakzio mekanikodun ibilgailuek arrastran eramandako atoi eta erdi-atoiak</b> |           |             |
| 1.000 kg. baino gutxiagoko eta 750 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak    | 2,0707054 | 36,59 euro  |
| 1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak                           | 2,0711236 | 57,52 euro  |
| 2.999 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak                                      | 2,0710191 | 172,52 euro |
| <b>F) Gainerako ibilgailuak</b>   |           |             |
| Ziklomotoreak   | 2,1270575 | 9,59 euro   |
| 125 cc-ra bitarteko motozikletak  | 2,1270575 | 9,59 euro   |
| 125cc-tik 250 cc-ra bitarteko motozikletak  | 2,1250711 | 16,41 euro  |
| 250 cc-tik 500 cc-ra bitarteko motozikletak   | 2,1256984 | 32,84 euro  |
| 500 cc-tik 1.000 cc-ra bitarteko motozikletak                                       | 2,2523079 | 69,60 euro  |
| 1.000 cc-tik gorako motozikletak  | 2,179855  | 134,69 euro |

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztu ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.



## 6.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Alkatetzak, 2024ko urriaren 15ean egindako probidentzian azaldutako legez, egokitzen eta beharrezkotzat jotzen du Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza fiskala aldatzea % 2,6ko gorakada batekin eguneratuz, KPIak izan duen gorakada aintzat hartuta.

Honela geratuko litzateke % 2,6ko igoera aplikatu ondoren:

| OHZ   | 2024   | 2025      |
|---|--------|-----------|
| <b>Hiri-ondasun higiezinak</b>                      |        |           |
| <i>Industria eta zerbitzu erabilerako lurzoruan</i> | 0,5734 | 0,5883084 |
| <i>Gainerako ondasun hiritarrak</i>                 | 0,1861 | 0,1909386 |
| <b>Landalur ondasun higiezinak</b>                  | 0,9722 | 0,9974772 |

Eusko Jaurlaritzaren BIZIGUNE, etxebizitzak alokatzeko programan parte hartzen duten etxebizitzek %60eko hobaria izango dute OHZ zergan.

2025 urtean ere, etxebizitza hutsak dituzten herritarrek % 100eko errenergua izango dute Hiri Ondasun Higiezin gaineko Zergan.

Idazkari-Kontuhartzaileak, 2024 urriaren 24ean, ordenantza fiskala aldatzeko jarraitu beharreko prozeduraren gaineko txostena egin zuen, baita aldeko Kontu-hartzailetzeko txostena ere.

Halaber, 2024ko urriaren 24ean, ondorengo ebazpen-proposamen txostena egin zuen

“... ”

**LEHENENGOA.** Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea, espedientearen agertzen den ondorengo testuarekin:

“... ”

### **ERANSKINA**

- Hiri Ondasun Higiezin gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa honako da:*
  - Industria edo zerbitzu erabilerako lurzoruan dauden ondasun hiritarrentzat: % 0,588316202*
  - gainerako ondasun hiritarrentzat: % 0,190884204*
- Landalur Ondasun Higiezin gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: % 0,997505*
- Subjektu pasiboarentzat ohiko bizileku ez diren etxebizitzak, bizileku erabilerako ondasun higiezin bat denean edo hirugarrenei alokairugatik edo erabilerarako lagapenagatik errenergua aplikatuko zaie: % 100*

...”.

Hobarien artean (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantzaren 5. artikulua) hurrengo zatia gehitzea:

“ ...

*d) %60ko hobaria zergaren kuota osoan ondasun higiezinaren erabilera Eusko Jaurlaritzaren programetarako lagatzen bada abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuaren bidez araututako «Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programa»ren esparruan.*

...”.

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki irizitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

...”

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

## **EBAZPENA**

**LEHENENGOA.** Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean agertzen den ondorengo testuarekin:

“ ...

### **ERANSKINA**

*1. Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa honako da:*

*b) Industria edo zerbitzu erabilerako lurzoruan dauden ondasun hiritarrentzat: % 0,588316202*

*b) gainerako ondasun hiritarrentzat: % 0,190884204*

*2. Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: % 0,997505*

3. *Subjektu pasiboarentzat ohiko bizileku ez diren etxebizitzak, bizileku erabilerako ondasun higiezin bat denean edo hirugarrenei alokairugatik edo erabilerarako lagapenagatik errekgua aplikatuko zaie: % 100*

...”.

Hobarien artean (Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen ordenantzaren 5. artikulua) hurrengo zatia gehitzea:

“ ...

*d) %60ko hobaria zergaren kuota osoan ondasun higiezin erabilera Eusko Jaurlaritzaren programetarako lagatzen bada abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuaren bidez araututako «Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programa»ren esparruan.*

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailearen 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

## **7.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

Alkatetzak, 2024ko urriaren 15ean egindako probidentzian azaldutako legez, egokitze eta beharrezkotzat jotzen du Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza fiskala aldatzea, batetik, uztailearen 5eko 15/1989 Foru Araura egokitzeko eta, bestetik, arlo honetan herrian dagoen errealitatera egokitzeko.

Hau izango da zerga honen inguruan antolatuko diren atalak eta koefizienteak:

| ATALA   | KOEFIZIENTEA |
|---|--------------|
| Eraikin berriak eraikitzea eta handitzeko obrak     | 5            |
| Eraikitako eraikinen berregokipen obrak             | 3            |
| Nekazal eta/edo abeltzaintza ustiapenera destinatua | 2,45         |
| BOE eta etxebizitza sozialak eraikitze obrak        | 3,22         |

|   |   |
|---|---|
| Proiektu teknikorik behar ez duten etxe barruko obrak | 0 |
| Etxebizitza eraikuntzen etxe aurreak margotzea        | 0 |

Idazkari-Kontuhartzaileak, 2024 urriaren 24ean, ordenantza fiskala aldatzeko jarraitu beharreko prozeduraren gaineko txostena egin zuen, baita aldeko Kontu-hartzailetzeko txostena ere.

Halaber, 2024ko urriaren 24ean, ondorengo ebazpen-proposamen txostena egin zuen:

**LEHENENGOA.** Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren Ordenantza Fiskal arautzailearen aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean agertzen den ondorengo testuarekin:

“...

#### ERANSKINA

| ERAIKUNTZA, INSTALAZIO KARGA EDO OBRA MOTA            | KARGA TASA |
|---|------------|
| Eraikin berriak eraikitzea eta handitzeko obrak       | 5          |
| Eraikitako eraikinen berregokipen obrak               | 3          |
| Nekazal eta/edo abeltzaintza ustiapenera destinatuak  | 2,45       |
| BOE eta etxebizitza sozialak eraikitzeko obrak        | 3,22       |
| Proiektu teknikorik behar ez duten etxe barruko obrak | 0          |
| Etxebizitza eraikuntzen etxe aurreak margotzea        | 0          |

...”.

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

Aurrekoak entzunda eta espedienteari erantsitako dokumentazioa azterturik, Udalbatzak, aho batez, honakoa onartu du:

#### EBAZPENA

**LEHENENGOA.** Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zergaren Ordenantza Fiskal arautzailearen aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean agertzen den ondorengo testuarekin:

“...

## ERANSKINA

| ERAIKUNTZA, INSTALAZIO KARGA EDO OBRA MOTA            | KARGA TASA |
|---|------------|
| Eraikin berriak eraikitzea eta handitzeko obrak       | 5          |
| Eraikitako eraikinen berregokipen obrak               | 3          |
| Nekazal eta/edo abeltzaintza ustiapenera destinatuak  | 2,45       |
| BOE eta etxebizitza sozialak eraikitzeko obrak        | 3,22       |
| Proiektu teknikorik behar ez duten etxe barruko obrak | 0          |
| Etxebizitza eraikuntzen etxe aurreak margotzea        | 0          |

...”

**BIGARRENA.** Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

**HIRUGARRENA.** Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**LAUGARRENA.** Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

## 8.- UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Gaia mahai gainean utzi zen datorren udalbatzan beste tasa eta prezio publikoekin batera aztertu eta onartzeko.

## II. GOBERNU ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

### ALKATETZA

## 9.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkatetzak 2024ko uztailaren 16tik urriaren 16ra bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman du.

### ANTOLAKUNTZA

## 10.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

| 429. DEKRETUA   |                |                        |
|---|----------------|------------------------|
| 2024.07.24  |                |                        |
| Hartzekodunak   | IFZ / IFK      |                        |
| SHARIN F5 Komunikazio kooperatiba   | F75219212      |                        |
| Prozedura   |                |                        |
| Berriak berri zerbitzu-kontratua  |                |                        |
| Aurrekontu zenbakia   | Bidalketa data | Zenbatekoa (BEZ barne) |
| 2254  | 2024.07.05.    | 1.820 €                |
| Laburpena   |                |                        |
| Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko ekainaren 6an egindako eragozpenezko txostena.   |                |                        |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Inprimagailuen hornidura Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazioen Zentralaren bidez dugu kontratatuta, 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L enpresarekin, atxikituta baikaude akordio markora. Hortaz, ezin dugu xede berdina beste enpresa batekin kontratatu.</li> <li>- Fotokopien zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko kontratua baita.</li> </ul> |                |                        |

| 430. DEKRETUA  |            |
|--|------------|
| 2024.07.24   |            |
| Hartzekodunak  | IFZ / IFK  |
| JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA  | 72445464H  |
| ADO  | Zenbatekoa |
| “P” fasea  | 1.987,39 € |
| Kontzeptua   |            |
| Jose Miguel Otaño Garcarenaren nomina: 2024ko uztailleko nomina  |            |
| Laburpena  |            |
| Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2024ko uztailaren 24an eragozpenezko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpenezko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengo adierazten den:   |            |
| <p>“Gaur egun Jose Miguel Otaño Garcarenak duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garcarenak urteetan zehar kontratatze “programa” baten barruan ezkutututako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garcarenak betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza</p> |            |

**435. DEKRETUA**

**2024.08.08.**

| Hartzekodunak                   | IFZ / IFK |
|---------------------------------|-----------|
| Securitas Direct España, S.A.U. | A26106013 |

**Prozedura**  
Alarma-mantenu zerbitzua

| Faktura zenbakia | Bidalketa data | Zenbatekoa (BEZ barne) |
|------------------|----------------|------------------------|
| 2407C00442157    | 2024.07.01.    | 306,15 €               |

**Laburpena**

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko abuztuaren 8an egindako eragozpeneko txostena.

- Kontratu txikiek ezin dute urtebeteko iraupena gainditu, eta ezin dira erabili errepikatzen diren prestazioak kontratatzeko.
- Orokorrean, ez dago fakturari estaldura juridikorik ematen dion ez dokumenturik, ezta espedienterik ere. Securitas Direct enpresarekin formalizatutako kontratua (legez kanpokoa, ondoren azalduko denaren arabera) 2021eko abenduaren 31n amaitu baitzen. Horrezkerotik Anoetako Udalak alarma mantenu-zerbitzua jasotzen jarraitu du, inolako estaldura juridikorik gabe.
- Adierazitako gastua ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jaraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIRESCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jaraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.

**436. DEKRETUA**

**2024.08.08.**

| Hartzekodunak | IFZ / IFK |
|---------------|-----------|
| SARENET, SAU  | A48714489 |

**Prozedura**  
Zerbitzua

| Faktura zenbakia | Bidalketa data | Zenbatekoa (BEZ barne) |
|------------------|----------------|------------------------|
| P24071154        | 2024.07.01.    | 291,92 €               |

**Laburpena**

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2024ko abuztuaren 8an egindako eragozpeneko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

- Orain arte Sarennet, S.A.U. enpresak helarazitako fakturretan “telefono zenbakien eramangarritasuna” kontzeptua jasotzen zen; 2023ko lehenengo fakturan kontzeptuz aldatu da, “Serbidorearen segurtasun kopien mantenua” kontzeptua erabilita. Nahiz eta kontzeptua desberdina izan, zerbitzuak bera izaten jarraitzen du, zenbateko berberetatik.
- Ordainketa-agindua nuloa da, gastu horri estaldura ematen dion kontratazio-prozedura ez delako legearen araberakoa;
- Udaleko telefonozko komunikazioak eta, horren barne, telefono zenbakien eramangarritasuna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kontratazio Zentralaren bidez kontratatua dago;

- Goian adierazitako zerbitzu-kontratua ezin da kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuzko prestazio errepikaria delako;

- Gainera, ez da SARENET, S.A.U. enpresaren alde eta xede berdinerako (telefono zenbakien eramangarritasuna) egiten den lehena, baizik eta lehenagoko beste batzuk ere badaudela: 2020ko maiatzaren 21eko dekretua, 2019ko otsailaren 6koa eta 2018ko martxoaren 8koa.

#### 457. DEKRETUA

2024.08.27

| Hartzekodunak      | IFZ / IFK |
|--------------------|-----------|
| RAY MENDIBURU ABAD | 15899889N |

#### Prozedura

Zerbitzua

| Aurrekontu zenbakia | Bidalketa data | Zenbatekoa (BEZ barne) |
|---------------------|----------------|------------------------|
| -                   | 2024.07.01.    | 291,92 €               |

#### Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2024ko abuztuaren 27an egindako eragozpeneko txostena, besteak beste, ondorengo adieraziz:

- Kontratatu nahi den zerbitzua udal funtzionario publiko batek bete beharko luke (apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92. artikulua; apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 169.1, 170.1 eta 171.1 artikulua; Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 172.1 artikulua; Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 44 artikulua, besteak beste).

- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 11.1 artikulua arabera, funtzionario publikoen zerbitzu-harremana lege horren eremutik kanpo geratzen da eta, beraz, baita proposatutako kontratua ere, proposatutako kontratua, kontratatu nahi diren zerbitzuak, goian aipatutako legeriaren arabera, udal funtzionario publikoek eman behar dituztenak baitira. Beraz, ezin da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean araututako kontratu-modalitaterik erabili proposatzen den arkitektoaren txosten teknikoa idazteko zerbitzuak kontratatzeko.

- Administrazio-egintza bat ematea legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita egintza horren erabateko deuseztasun-kausa da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Beraz, 9/2017 Legean aurreikusitako kontratazio-modalitateen bidez udal-txosten tekniko bat idazteko zerbitzuak kontratatzeak erabateko deuseztasuna izango luke, goian aipatutako artikulua arabera.

- Ondorioz, goian adierazitako kontratazio-proposamena ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazio Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.

#### 458. DEKRETUA

2024.08.29

| Hartzekodunak                 | IFZ / IFK |
|-------------------------------|-----------|
| JOSE MIGUEL OTAÑO GARCARENENA | 72445464H |

| ADO       | Zenbatekoa |
|-----------|------------|
| “P” fasea | 2.343,34 € |



### Kontzeptua

Jose Miguel Otaño Garciarenen nomina: 2024ko abuztuko nomina + soldata-igoera

### Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2024ko abuztuaren 29an eragozpeneko txostena egin zuen 2022ko martxoaren 31ean egindako eragozpeneko txostenaren edukia jasoz, non, besteak beste, ondorengoa adierazten den:

*“Gaur egun Jose Miguel Otaño Garciarenek duen kontratuak ez dituela betetzen programa bitarteko izendapen batek bete behar dituen betekizunak, barneratzen dituen ekintzak ezin direlako aldi batekoak, baizik eta ohiko ekintzak eta eginkizunak, 2019tik (gutxienez) kontratatzen eta ematen etorri direnak; Jose Miguel Otaño Garciarena urteetan zehar kontratatzeko “programa” baten barruan ezkatutako legez kontrako kontratazio kateatuak direla eta, hortaz, Anoetako Udala lege-iruzurra egiten ari dela; Jose Miguel Otaño Garciarenek betetze dituen eginkizunak egiturazkoak direla eta, beraz, horiek berriro ere kontratatu nahi balira, Udalak lanpostua sortu beharko lukeela (lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan), eta ondoren lan-eskaintza publikoaren bidez dagokion deialdia egin”.*

### 472. DEKRETUA

2024.09.11

#### Hartzekodunak

YOSEBA MAROTO CARBAJO

#### IFZ / IFK

72528511N

### Prozedura

Hirigintza sailerako arkitekturako aholkularitza zerbitzua

#### Aurrekontu zenbakia

-

#### Bidalketa data

2024.01.12

#### Zenbatekoa (BEZ barne)

68,97 €/h x 35 ordu = 2.413,95  
€

### Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaitzak 2024ko irailaren 11n egindako eragozpeneko txostena, besteak beste, ondorengoa adieraziz:

- Kontratatu nahi den zerbitzua udal funtzionario publiko batek bete beharko luke (apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92. artikulua; apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 169.1, 170.1 eta 171.1 artikulua; Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 172.1 artikulua; Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 44 artikulua, besteak beste).

- Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 11.1 artikulua arabera, funtzionario publikoen zerbitzu-harremana lege horren eremutik kanpo geratzen da eta, beraz, baita proposatutako kontratua ere, proposatutako kontratua, kontratatu nahi diren zerbitzuak, goian aipatutako legeriaren arabera, udal funtzionario publikoek eman behar dituztenak baitira. Beraz, ezin da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean araututako kontratu-modalitateak erabili proposatzen den arkitektoaren txosten teknikoak idazteko zerbitzuak kontratatzeko.

- Administrazio-egintza bat ematea legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita egintza horren erabateko deuseztasun-kausa da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Beraz, 9/2017 Legean aurreikusitako kontratazio-modalitateen bidez udal-txosten tekniko bat idazteko zerbitzuak kontratatzeak erabateko deuseztasuna izango luke, goian aipatutako artikulua arabera.

- Ondorioz, goian adierazitako kontratazio-proposamena ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarrabidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikusatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarrabidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria.



Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira, bestelako galderarik egin gabe.

## **MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

### **GALDE-ERREGUAK**

#### **12.- GALDE-ERREGUAK.**

Ez da galde-erregurik egon.

Eta aztertzeko gai gehiago ez denez egon, Alkate-lehendakariak, Udalbatzara bertaratu direnei eskerrak emanaz, batzarraldia amaitutzat eman du akta honen goialdean adierazitako eguneko arratsaldeko 19:17etan. Idazkari naizen honek akta hau egin eta bertan jasotako guztia ziurtatzen dut.